



PLENTZIA KIROL ELKARTEA

Plentziako Kirol Elkartek, 2010-2011eko denboraldirako aurre-inskripzio epea zabaltzen du 1992tik 2005rarte (biak barne) jaiotako neska-nutil guztientzat.

Honetaz gain, jakinarazi nahi dugu Plentziako K.E.-ak, elkarte barruan iraunkortasun bat ziurtatzen duela, adin guztietako taldeak ditugulako. Mutiletan: bi sein-aurre, hiru sein, bi kimu, haur talde bat, kadete talde bat, gazte talde bat (1go mailan) eta nagusi talde bat (1go mailan). Nesketan, haur talde bat eta beste kadete talde bat. Guztira, 230 jokalaria inguruk parte hartzen dutelarik.

Haurren mailarte, KIROL ESKOLA txapelketan murgilduta daude bai nesketan baita mutiletan ere. Hemendik gora, KIROL FEDERATUAN parte hartuko dute. Neskentzako zein mutilentzako adin banaketa honako hau izango litzateke:

- Sein-aurre: 2003-2004-2005an jaiotakoak
- Sein: 2001-2002an jaiotakoak
- Kimu: 1999-2000an jaiotakoak
- Haur: 1997-1998an jaiotakoak
- Kadete: 1995-1996an jaiotakoak
- Gazteak: 1992.1993-1994an jaiotakoak

Kirol Elkartetik, batez ere, neskak animatu nahi ditugu nesken kimu talde bat atera ahal izateko eta ahal izanez gero neska nagusien beste talde bat ateratzeko. Horrela, nesken irainkortasuna ziurtatu ahal izateko.

Horretarako, atxikitutako orria bete eta hartu duzuen leku berberera eraman behar duzue, guk batu ahal izateko. Bestela, elkartera, klubeko tabernara edo hango buzoian uzteko aukera daukazue. Izena emateko epea 2010 ko maiatzaren 21 arte zabalik egongo da.

Informazio gehiago nahi izatekotan www.sdplentzia.com web orrialdean, sdplentzia@gmail.com posta elektronikoan edo 649340070 telefonoan eskuragarri duzue.

Ekainean, deialdi bat egingo da aurre-inskripzio bete duten guztientzat. Aldez aurretik, ezagutzera emango dizuegu deialdi honen orduaz eta egunaz. Deialdi honen helburua elkar ezagutzea, geure filosofiara eta antolakuntzara hurbiltzea eta hurrengo urterako entrenamenduen behin-behineko ordutegien berri ematea izango da.

Adeitasunez

Plentzia Kirol Elkarteko Zuzendaritza Batza